

IRABAZI ITURRIAK

Irabazien iturria enpresa edo proiektu batek lortzen duen diruaren jatorri nagusia da. Jarduera desberdinetatik etor daiteke: produktuak saltzea, zerbitzuak eskaintzea edo inbertsioak egitea. Gure kasuan, produktuak saltzean oinarritzen da. Iturri hori identifikatzea eta zaintzea funtsezkoa da egonkortasun ekonomikoa mantentzeko eta hazkundera bultzatzeko.

Enpresa martxan jartzeko bi iturri finantziarioetatik ekingo dugu, alde batetik jabe bakoitzak jarriko duen dirua, 2.000€, eta, bestetik, bankuari eskatuko diogun mailegua 30.000€. Diru kantitate honekin errazago izango dugu hasteko, eta hasierako arazoak murrizteko, diru kantitate bat baitauekagu aurrera egiteko.



Gure enpresaren irabazi-iturriak, makinen salmentan oinarritzen dira. Horrez gain, ordezkoko piezak eskaintzen ditugu puskatu edo zahartu daitezkelako. Horren arira, gure irabazien %80 makinen salmentatik aterako da eta %20 ordezkoko piezen salmentatik. Ordezko piezen prezioak, prezio desberdinetan baloratuak egongo dira zein pieza aldatzeko beharra dagoen arabera. Makina 2.349€-tan salduko dugu, prezio hau nahiko garestia da, baina benetan aukera bikaina da inbertsio bat egiteko.

Egunean 7-8 makina saltzea aurreikusten dugu eta astean bost egunetan egingo dugu lan, beraz, astean 36 makina salduko genituzke, hori gure helburu nagusia izanez. Hilean 144 makina inguru saltzea espero dugu, eta horrek hilero 338.256€-ko fakturazioa ekarriko liguke. Gure hilabetezko etekinak, kostuak erantsiz, 165.771€ izango dela kalkulatu dugu. Kontuan hartu behar dugu salmenten zifrak ez direla beti berdinak izango eta aldakorrak izango direla, hortaz zifra hauek orientagarriak dira.

Hasierak ez dira errazak izaten, orduan kontziente izan behar gara lehenengo hilabeteetan ez garela ezagunak izango eta gure produktua saltzeko zailtasunak eduki ditzazkegula. Gertaera horien aurrean, normaltasunez jokatu beharko dugu, ohikoak diren gauzak direlako eta egoera txarrak jasaten ikasi ere egin behar baita.



Armairua herrialde desberdinetan salduko denez, gure irabaziak handitu daitzeke. Herrialde gztutietan ez ditugu salmenta berdinak edukiko, baina aukera honek gehiago saltzea eta ezagunagoak izatea erakarri dezake.

Amaitzeko, gure irabaziak nondik ateratzen diren eta nola eskuratuko ditugun jakiteak, enpresa handitzen, lana ondo egiten, enpresa ondo gestionatuta edukitzen eta enpresa aurrera ateratzen lagunduko digu.